


Ezpalak

JON TORNER

Emilio Sagi asturiarra (Espainia) izango da hurrengo lau urteetan Bilboko Arriaga antzokiko zuzendari artistikoa. Sagik Luis Pasquali hartuko dio lekukoa eta Daniel Bianco Madrilgo Teatro Real antzokiko zuzendari teknikoaren laguntza izango du. Programazioaz ere arduratuko dira Sagi eta Bianco.

Juan Berraondo artista gipuzkoarrak Donostiako Kutxa Boulevard I aretoan jarri ditu ikusgai bere marrazkiak. Leku berean, Benito Pajares palentziarraren argazkiez osatutako *Emakumea munduan* izeneko erakusketa ere topa dezakegu. Hilaren 30a arte izango dira biak zabalik.



Nestor Basterretxea artista bermeotarraren bizitza pertsonalari eta artistikolari buruzko *Erroen modernitatea* izeneko lana kaleratu du Pamiela argitaletxeak. DVD batek eta liburuxka batek osatzen dute lana, eta Jose Angel Irigarai eta Josu Zabalak egin dute. Ekoizpena, berriz, Arteolaren eskutik etorri da. Aurkezpenen jakinarazi zutenez, datorren urtearen hasieran Basterretxearen inguruko erakusketa jartzeko asmoa dute Donostiako Kursaallean.

Woody Allen zinema zuzendari eta aktorearen azken liburua euskaraz kaleratu du Donostiako Meettok argitaletxeak, *Anarkia hutsa* izenburupean. Umore eta ironiaz beteriko hemezortzi narraziok osatzen dute Woody Allenen liburu berria. Jatorrizko bertsoia duela hiru hilabete argitaratu zuten.

Karmele Jaio idazle gasteiztarrak *Zu bezain ahul* (Elkar) liburua argitaratu du. Hamabost narrazio labur bildu ditu Jaio bere hirugarren liburuan.

Guggenheim museoak jasoko du Eusko Jaurlaritzak eman ohi duen Euskaldun Unibertsalaren Saria. 1996az geroztik, "munduan Euskadiren izen ona" zabaltzen duten hainbat pertsona eta erakundek jaso dute sari hori.

Originalari eta kopiari buruzko hausnarketa

Gasteizko Artium museoan *Errep(l)ika Gaiak* argazki erakusketa izango da ikusgai 2008ko abuztua arte. Euskal Herriko eta nazioarteko 74 artista ezagunen 114 obra bildu dituzte bertan. Horien artean daude, besteak beste, Miguel Angel Gaueka (eskuineko obra berea da), Carmela Garcia (azpikoa), Pierre Gonnord, Peter Granser, Victoria Diehl, Spencer Tunick eta Txomin Badiola. Jatorrizko



artelanen eta kopien arteko harremanaz hausnartzera bultzatu nahi du erakusketak. Bestalde, Montehermoso kulturuneak argazkilaritza, bideogintza, pintura eta eskultura uztartzen dituzten zortzi erakusketa jaso ditu. *Sorkuntza 06* deialdian parte hartu zuten artisten obrak dira guztiak.

Bartokek eta Straussek eman diote hasiera OLBEren denboraldiari

OPERA LAGUNEN BILBOKO ELKARTEAK (OLBE) hilaren 22an eskaini zuten denboraldi berriko lehenengo emanaldia, Bilboko Euskalduna Jauregiko auditorioan. Bi obra interpretatu zituen OLBEk: Bela Bartoken *Bizarruridinen gaztelua* (1911) eta Richard Straussen *Elektra* (1909). Irailaren 28an eta urriaren 1ean ere eskainiko ditu bi opera horiek. Azaroaren amaieran Verdiren *Aida* obra izango da ikusgai eta urtarrilean Mozarten *Così fan tutte*.

Barbara Goenagak *Euskoenews Gaztea* web gunean: «Aktore lanaz bizitzea ez da inon erraza, baina geroz eta proiektu gehiago sortzen diren tokietan aukerak ere zabalagoak izaten dira. Hala, Euskal Herriko aktore ugari ateratzen gara beste proiektu batzuen bila (...) Euskal Herrian lan gehiago egitea gustatuko litzaidake. Niretzat luxua da etxean lan egin ahal izatea».

Juanjo Mena Bilboko Orkestra Sinfonikoko zuzendariak *Berrian*: «Musika klasikoaren egoera ona da Euskal Herrian, baina kontserbatorioek eta musika eskolek instituzioen ardura handiagoa merezi dutela uste dut. Ardura serioa eta ez alderdikoa».

Iñaki Esnaola musika kazetariak *Garan*: «Heavy metala *underground* musika da, herri musika, eta ez du sekula harre-
ra berorik izan hedabideetan. Rock gogorraren munduan ere gaizki ikusita zegoen hedabide komertzialean ateratzea, baina hau hautsi egin da, adibidez Mago de Oz-ekin, batzuek justu horregatik gorrotatzen badute ere».

Aitzol Barandiaranek *Noticias de Gipuzkoa* egunkarian esanak: «Bertsolari gazteen eremuak, egun, gaztetxeak dira. Garbi daukagu ez garela antzoki handiak betetzeko erreklamo, beraz, bakoitzak bere lekua aurkitu behar du. Eta, noski, ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatu».



Postal bat Sail Ofizialaren marko paregabetik

Tinta baldeka paperera 55. Zinemaldia dela kari. Filmez hitz egin da batzuetan, kontu arrosagoez bestetan. Harrigarria, inork ez du Donostiako marko paregabea aipatu. Hortik titularra. Ez zaitut aspertu nahi. Labur ariko natzaizu igandera (23) bitartean ikusitakoez.

Hilak 20: David Cronenberg-en **Eastern promises** galdu (#*!!!) eta Iciar Bollaín-en **Mataharis**-ekin hasi zitzaidan Zinemaldia. Hiru emakume detektiberen istorioak aitzakia hartuta, Bollaínek bikote harremanetako inkomunikazioaz jardun du. Emaizta, balekoa, apur bat desorekatua agian.

Nota hobea Manuel Poirier-en **La maison** filmaren zat. Sergi Lópezen lana azpimarratzeko modukoa da. Uzta ona 21ekoa. Egun horretan ikusitako bestea, Nick Broomfield-en **Battle for Haditha**, zirrargarria da.

Telebistako albistegiak lortu ez dutena zineman ikusgai: Iraken zu eta ni lako zibilak bizi eta hiltzen dire-



la. Ez direla estatistikak. Errealista oso, ia dokumentalaren parekoa.

22an lehen lau egunetako onena: **Buda az sharm foru rikht**. Maisulana Hana Makhmalbaf-ena. Afganistango 6 urteko umeak eskolara joan nahi du, baina ezin, neska izaki; taliban izatera jolasten duten umeek bahitu eta harrika egin nahiko diote. Xaloa eta gordina. Krudela, umeak bakarrik izan daitezkeen eran. Urte egin ninduen.

Gainontzekoak telegraman: Paul Austerren **The inner life of Martin Frost**. Nola esan... oso Auster STOP **Free Rainer** alemaniarra: planteamendu bitxia. Eszena antologikoak. Telezaborrari kritika ironiatsua. Oso ona STOP **Emotional arithmetic**: Gerra Handiaren biktimak, zauriak itxi nahian. Karga sentimental handikoa, beharrezko umore ukituarekin STOP **Earth**: ez ninduen une egokian harrapatu STOP.

GORKA BEREZIARTUA



Kosmonauta iruzurtiaren kronika Elah bailaratik

Sail Ofizialak izan ohi duen sakontasunetik at, era guztietako film bitxi eta interesgarrietarako saski-naskia izaten da normalean Zabaltegi. Aurten ere, lehenengo lau egunetan ikusi ditugun pelikuletan behintzat, oro har gozatzeko moduko ikuspegi eta istorioak aurkitu ditugu. Zuzendari Berrien atalean, esaterako, Felix Randau zuzendari alemaniarraren **Air anruferin** (Dei jokoa) filmak aho bete hortz utzi gaitu. Bakardadeari buruzko kontakizunetan, dena asmatua zegoela uste genuen. Ezetz erakutsi digu leuzemia duen umea dela esanez kontsolamendu bila ezezagunei deitzen dien emakume protagonistak. Eguneroko etsipenetik ihes egiteko desirak gizakia noraino eraman dezakeen deskubritzea bel-durgarria eta zirrargarria izan da. Eta horrelako jaialdian hain eskertzekoa den aire fresko eta dibertigarria **Casual Day** pelikulak ekarri du. Enpresa handi bateko



lan harremanen barrenak atera ditu modu gordin bezain barregarrian Max Lomcke espainiarrak. Guk bederen gustura egin dugu barre. AEBetako filmen artean, nabarmentzeko bi: **The hoax** (Iruzurra), ezagutzen ez genuen eta ezagutzea merezi duen historia erreala kontatzeagatik. Dirutza handia jokoan duen gezurra asmatu ostean, protagonista iruzurra noiz arte mantentzeko gauza izango den ikusteak harrapatuta eduki gaitu. Eta **In the valley of Elah** (Elah bailaran), gerrari buruz ezer berririk esan ez arren, thriller interesgarria iruditu zaigulako.

Euskal zinemak ere izan du ordezkariarik Zabaltegin, baina Diego Fandon nafarraren **Cosmos**-ek hotz utzi gaitu. Kosmonauten antzera, espazioan, denboran, gidoian galdurik ibili gara. Izarrei eta itsasoari buruzko filosofia gehiegi, hainbeste istorio nahasiren artean.

MIKEL GARCIA